

---

## XVIII. BIZKAIKO FRISOI TXAPELKETA

(2019.12.03)

Pasa den larunbatean, hilak 1, XVIII. BIZKAIKO FRISOI ARRAZAKO TXAPELKETA ospatu zen Gordexolan.

Txapelketan s ustialekuk hartu zuten parte. Bost bizkaitarrak ziren: El Arroyo, CAsa NUeva, Murrieta, Ardeo eta Poyu. Baina ordezkari gipuzkoarra ere izan zen, Igeldoko Ondazarte Gain. Guztira 53 abelburu izan ziren txapelketan, zazpi ataletan banatuta.

Txapelketako irabazle nagusia Casa Nueva izan zen, 3 sari nagusiak eraman baitzituen.

Tolosan bezalaxe, CASA NUEVA DOORMAN ALICIA nabarmendu zen bigen atalean. Behien atalean CASA NUEVA CHELIOS JANA izan zen behien txapeldunen txapelduna eta ustialeku onenari saria ere irabazi zuten.

Ondazarte ez zen esku hutsik itzuli: esnetan dauden 4 urtetik gorako behien sekzioan bigarren saria irabazi zuten ONDAZARTE SID TXIMISTARRIekin.

Jana, Alicia eta parte hartzaileak.

